

Eskeko fraideak

Eskeko Ordena erlijiosoek historia emankorra izan dute Euskal Herrian, batez ere Erregimen Zaharreko garaietan (hau da, XIII-XVIII. mendeetan). Geroko bi mendeak gabe ere, 600 urteko bizialdia da hori.

“Eskekoak” esatean, karmeldar, frantziskotar, domingotar, agustindar eta mesedetako fraideak dira batik bat aipatu nahi ditudanak. Gaztelaniaz, *mendicantes* deitu izan zaie, eta frantsesez, *mendiants*.

Gure Hiriburuetakoko kale-plazzen izenetan ere ageri da horien historia: Bilbo, Gasteiz, Donostia edo Iruñean beti dago “San Frantzisko”, “Sto. Domingo”, “San Agustin”, “Karmengo Ama” edo “Merced” izena daraman kale edo plazaren bat, eta Baionan hori ditugu “Cordeliers” edo “rue des Carmes” karrikak. Erdi Arotik zetozen aspaldiko izenak dira; historia zaharra eta luzea, beraz.

“Eskekoenak” milaka fraide anitz bildutako fraidearteak izan dira, gizarte-gizartean sartuta, berori barrutik aldatzen ahalegindu ziren Ordenak. Beneditarren monasterioak, herrietatik urrun samar ageri zaizkigun bezala (Irantzu, Leire...), Eskeko fraideen komentuak herri ondoran edo barruan aurkituko ditugu, hauetakoa gutxi batzuek herri-kanpoan bakardadea bilatu zuten arren.

Eskekoen iraultza (XIII. mendea)

Eskeko Ordenak XIII. mendekoak direla esan ohi da, nahiz eta bizirik eta oso bizirik XIX. menderaino eta gure egunak arte heldu diren. Ez, noski, aldakuntzarik gabe.

Aurreko gizaldietako monasterioen ondoren, Berant Erdi Aroa Eskeko Ordenen garaia

da (XIII-XV. mendeak). Orduan izan zuten loraldirik ederrena, ondoren osatu eta borobilduko zutena. Horixe da fraideen aroa, monjeen monasterioak itzaliz edo zihoazen bitartean. Hala gertatu zen Europan, eta horrela Euskal Herrian ere.

Norentzat eta zertarako jaio ziren, bada, Eskeko Ordenak?

XII. mende-bukaeratik hasita, gizarte berri bat jaiotzen ari zen Mendebaldeko Herrialdeetan (Italian, Frantzia...): Hiri eta Hiribildu berrien mundua zen, bere klase burgesarekin, ofizio eta ekonomia berrieekin; artisauek eta merkatarizosatuak herriak ziren haiek.

Eskakizun berrien gizartea zen hura, eta kezka eta burutazio berriz betetakoa. Disidentziak eta heresiek ahots gora hitz egin zuten garaia zen, gainera. Bururik kezkatuenek Ebanjelioa eta kristau jatorrasuna eskatzen zuten, eta eliz Hierarkia bera ere urduri zebilen mugimendu haien aurrean. Hori tarteko, laster sortuko zen kristauek kristauen aurka egingo zuten lehenengo gurutzada ere, doktrina arrazoiengatik edo, Aita Santuek deituta, kataroen kontra (Okziantia, 1209-1229).

Eskeko Ordenek balio handiak ekarri zituzten Elizari eta gizarteari: herritarrekiko hurbiltasuna, biziera pobrea eta herritarrentzako predikua. Kristau artea biziberritzeko Sto. Domingo (1170-1221) eta San Frantzisko (1182-1226) Eskeko Ordenen lehen gurasoek eskuetan izango dituzten lanabesak horiexek izango dira.



Proiektu horrek nolako arrakasta izan zuen ikusteko adierazgarria da Frantzian Eskeko lau Ordena handienek lortutakoa: 1500a aurretik, 882 komentu-etxe ireki zituzten Erreinu osoan: horietako %42 frantziskotarrenak ziren, %16 domingotarrak, %12 agustindarrak, %11 karmeldarrak.

Eskekoak Euskal Herrian

Eskeko Ordenen Euskal Herriko presentzia goiztarra da, XIII. mendean bertan lehenengo etxeak izango dituenak. Lehen komentuen urteak ondokoak ditugu: adibidez, berehala datoz Iruñean frantziskotar (1230), mesedetako (1231) eta domingotarrak (1234). Urte bertsuetan Ordena berak ageri dira Gasteizen, eta zerbait geroago Baionan (frantziskotarrak, 1242).

Nafarroa eta Arabako Herrialdeak izan ziren Eskekoen lehenengo euskal lurraldeak, komentu haiek ez baitziren Hiriburuetan bakarrik jarri: Tuter, Lizarra edo Zangoza bezalako hiri handiago edo Santiago-Bidekoetan ireki zituzten beren egoitzak, sarritan Errege eta Handikien laguntzaz baliatuta.

Komentuen hau euskal Hiribilduen (*Villas*) sorrera eta hazkundearekin lotu behar da. Nafarroatik hasitako herri berrien sustapena (XII. mendea) hurrengo bi mendeetan Hiru Probintziatar ere zabaldu zen, indar handiz gainera: Donostia eta Urretxuren sorrera-urteak mugatuz hartuta begiratuz esateko, 1180tik 1383a arte 66 Hiribildu sortu ziren hiru Probintzia horietan.

Herri berriok gora egin zuten neurrian, fraideen premia ere nabariagoa izan zen, gizarte berriutak eliz lan-molde berriak eskatzen zituelako, noski. Hala ere, XIII. eko haien ondorengo beste eskeko komentuak ez ziren berehalako

batean hedatu Euskal Herri osoan, ezarian eta apurka baizik. Euskal Hegoaldeko kostaldean geroago agertu ziren komentu berriok, Bizkaian lehenengo (Bermeo, 1357) eta XV-XVI. mendeetan baita Gipuzkoan ere.

Azpitarratzekoa da komentuen loraldi horretan emakumeek izandako lekua, sarritan fraideei aurrea hartuz ibili baitziren mojak, eta ez Iruñean bakarrik (1228), baita Urduña (1296) edo Bizkai osoan eta Gipuzkoan ere. Hainbat mojakomentu edo monasterio herrietako serora-taldeetatik jaio zen, Ordenaren baten babesera biltzean (Durango, 1439; Segura, 1519). Zinez, herri-herriko alabak ziren lehen moja haiek.

Erdi Arotik Modernorako pasabidean (1480-1570), Eskekoen euskal komentuak Obserbantzia deitutako eta biziera latzagoa omen zekarren Erreformen sartu ziren (lehendik Obserbantzia-koak ez zirenak esan nahi da). XVI-XVII. mendeetan moldatu zen Eskekoen Euskal Herriko mapa osoa; aldi berean, Ordena horiek izan ziren batez ere Amerikako Misioen mundua gora ekarri zutenak.

Euskal Erdi Aroko Eskeko Ordenen garapen erlijioso-kultural hura aintzakotzat hartzekoa da, duen garrantziagatik, eta ondoko gizaldiei utzi zien tradizioagatik ere.

Gehiago jakiteko

LE GOFF, J. (1999): *Saint François d'Assise. Paris: Gallimard.* (Santua eta inguruko gizartea).

INTXAUSTI, J. (ed.) (2004): *Euskal Herriko Erlijiosoen Historia.* Arantzazu: EFA. (I: 161-176, 189-209, 283-316, 325-376, 405-472).

Galderak eta oharra: 610273580.

Joseba Intxausti